



Zeberio Udalak 2020ko bagilaren 25ean egindako ezohiko osoko bilkuran, Adierazpen Instituzional hau onartu eban:

Zeberio Udala 2020 B 28 Adierazpen Instituzionala

Bagilaren 28an, 1969an New Yorkeko Greenwich Villagen izandako Stonewallek matxinadak oroituko doguz mundu osoan. Gertaera horren ondorioz sortu zan nazinoartean LGTBIQ+ Harrotasunaren Eguna izenagaz ospatzen dan askapen mugimendua. Injustiziaren, diskriminazioaren eta etenbako jazarpen sozial eta polizialaren aurkako herritarren matxinadatik sortutako oroitzapena, mundu osoko eskubide zibilen eta sexu-eskubideen aldeko mugimendu hau eragin ebana.

Gurera etorrita, Stonewalleko gertaera eta hamar urte beranduago, 1979ko ekainaren 10ean, polizia batek Antonio Vicente Santa María (Francis) hil zuen Errenteriako diskoteka batean, trabesti izateagatik. Ekainaren 28 horretan LGTBI pertsonak eta kolektiboek Euskal Herriko kaleak hartu zituzten estreinako aldiz, euren sexualitatea eta generoa modu askean bizitzea aldarrikatuz.

Salto eginda gaurko egunera, esan genezake une honetan Covid-19aren pandemiaren ondorioz, momentu historiko aparta bizi dugula. Mundua oso astindua izan da, gure bizimoduak hankaz gora jarri dira eta "normaltasun berri" batera itzultzeaz hitz egiten entzun dugu. Hala ere, LGTBIQ+ pertsonak gure gizarte-ereduak ezartzen duen arauarekiko disidenteak direnentzat, itzulera horrek diskriminaziora eta bazterkeriara itzultzea ekar dezake.

Erakundeetatik pertsona guztientzako eskubide guztiak bermatzeko erantzukizuna dugu, eta bereziki zaindu behar dugu LGTBI bezalako kolektibo zaurgarrienek eskubide horiek izan ditzaten, eta krisia ezin da aitzakia izan inor atzean uzteko. Garaiz gaude "normaltasun berri" hori garai berri bat izan dadin, euskal jendarte errespetuzkoago, justuago, duinago eta askeago baterantz aurrera egiteko aukera bat

Gure lurraldean legegintza-arloan azken urteotan egindako aurrerapenak gorabehera, sexu-orientazioa eta genero-identitatea legez jazartzen jarraitzen dabe herrialde askotan, oraindik ere, Amnistia Internazionalaren ILGA 2019 txostenek egiaztatzen daben lez, *"nahiz eta NBEko 123 estatu kideetan sexu bereko helduen artean adostutako sexu-ekintzak legezkoak izan, oraindino 70 estadutan zigortzen eta kartzelagaz, biziarteko kartzela-zigorragaz edo heriotza-zigorragaz jazartzen jarraitzen da, lesbiana, transexual, bisexual, gay, intersexual, izate hutsagaitik"*,

Europako ekialdeko eskualdeetan gertatzen ari dan lez, han sarekada masiboak egoteaz ganera, LGTBIQ+ pertsonentzako kontzentrazio- eta tortura-esparruak zabaldu dirala salatu baita.

Aurreko guztiagatik, Udal honek LGTBIQ+ pertsonen eskubideekin urteko egun guztietan duen konpromiso politikoa berretsi nahi du. Adierazpenetatik haratago, gure konpromisoa politika zehatzetan islatu behar da, bakoitzak bere giza baliabide, baliabide tekniko eta ekonomikoekin: mugimendu feministako eta LGTBIQ+ mugimenduko ordezkari eta adituekin bat datozenak.

Hori holan, Zeberioako Udalak:

- Bere babesa eta esker ona adierazten die sexu-orientazioan eta genero-identidadean oinarritutako diskriminaziorik edo bazterketarik bako gizarte bat lortzeko helburuagaz LGTBIQ+ kolektiboa ikusarazteko lan egiten dabenekintzaile eta alkarte guztiei.
- Konpromisoa adierazten dau giza eskubideei eta norberaren orientazio eta sexu askatasunari. Horregatik, sexu-orientazioan eta genero-identidadean jatorria daukan edozein indarkeria-, umiliazio- edo mespretxu-mota gaitzesten dau.
- 2020-24 Udal Bardintasunerako II. Planean sexu-aniztasunagaitik eta genero-identidadeagaitik eragindako diskriminazioaren aurkako borrokan sentsibilizetako eta jarduera aktiboak egiteko ekintza espezifikoak txertatzeko konpromisoa hartzen dau. Hala nola, aniztasuna ikuspegia duten prestakuntza-prozesuak bultzatzea, langile publikoeta politikoentzat, bereziki, jendeari arreta emateko, eta gizarte- eta hezkuntza-esparrurako.
- Halaber, jazarpen eta eraso LGTBIfobikoei erantzuteko eta arreta emateko protokoloak bultzatzea hainbat eremutan: Hezkuntza, kultura, komunikazioa, enpresa.
- Haurrak eta nerabe transexualak babesteko neurriak ezartzea, bereziki trans errealitatea barne hartzen duten hezkidetzaprozesuak, gizarte eta hezkuntza eragileekin.
- LGTBI pertsonen eskubideak bermatzera bideratutako neurriak aktibatze aldera, administrazio-formularioetan aldaketak egitea binarismoa gainditzeko.
- Bagilaren 26tik 28ra bitartean ostadarraren bandera jarriko dau udaletxeko fatxada nagusian.
- Zeberioako herritarrak egun horretarako egingo diran aldarrikapenetan parte hartzera animetan dauz.